

KONTINGENTZIA PLANA

Laburpena

UNIBERTSITATEKO CAMPUSAK ETA EGOITZAK: PREBENTZIO, BABES, SEGURTASUN ETA HIGIENE NEURRI OROKORRAK



- ✓ **MASKARA:** Maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da Unibertsitateko gune guztietan eta uneoro.
- ✓ **PERTSONEN ARTEKO SEGURTASUN TARTEA:** Normalean, pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun tarte gordeko da.
- ✓ **GEL HIDROALKOHOLIKOA:** Eskuak garbitzea da kutsapena prebenitu eta kontrolatzeko neurri nagusia, dela urez eta xaboiz, dela gel hidroalkoholikoz. Unibertsitateak jarriko ditu neurri hori aplikatu dadin errazteko behar diren gel banagailuak.



- ✓ **SARRERA, IRTEERA ETA BARRUKO JOAN-ETORRIAK:** Ahal dela, sarrerak eta irteerak mailakatu egingo dira eta barruko ibilbideak ezarri, pilaketak saihesteko eta segurtasun tarte bermatzeko. Zabalerak ahalbidetzen badu, eskuineko aldetik zirkulatu behar da, eta ezkerreko aldea kontrako noranzkorako utzi. Korridore eta eremu partekatuek ahalik eta gutxien erabiliko dira eta leku batetik bestera joateko bakarrik. Igogailua ezinbestean baino ez da erabiliko eta, erabili beharra egonez gero, pertsona bakarra joango da barruan.



- ✓ **GARBIKETA, DESINFEKZIOA ETA AIREZTAPENA:** Leku eta instalazio guztiak oso ondo garbitu eta desinfektatuko dira garbiketa programa indartu batekin. Gela eta instalazioen aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko da, barruko airea berritu dadin. Gelan daudenei dagokie horretaz arduratzea. Behar diren bitartekoak jarriko dira irakasleek gelako/laborategiko ekipamendu partekatuek, mahaia eta aulkia garbitu ditzaten eskolaren hasieran eta amaieran.